Euskal gaien enziklopediaz

Gure herrian bat batean piztu da euskal kulturaren alderako gogoa eta jendeari multzoka piztu ere. Pozgarria zaigu. Asko ta asko adinean sartuz gero arduratzen hasiak badira ere, betoz zorionean. Baina gauzak ez dira gabetik goizera lortzen eta gazteengan itxaropen gehiago dut eta hoietarik ere estudianteengandik. Unibertsitatea aurrera joaten den neurrian ezagutuko dugu kultur sendoaren hedapena.

Egia esan, orain arte afizioz hasitako autodidakta batzuen eskuetan egon da kultur gaien ekinIza. Herriko jendeak berak, bakoitzak bere ofizioa edo zaletasuna beteaz jarraitu duen kultur bidearen bálio etnografikoa ukatu gabe. Geroan ere, eta urte askotan gainera, autodidakta horien beharra izango da, oraindik orain gai guziak hezkuntza bidez eroan ezinez eta geroago ere gai bati loturik espezializatzeaz alor zabalagoak bakoitzak bere kaxara landu beharrezkoak izango direnez.

Zertarako eta zenbat jakin nahi den, hori beste kontu bat da. Batzuk gertakari anekdotikoetatik haruntza ez dira joango, baina beste batzun gogo kezkatua inoiz igarri ezinezkoa da. Hontaz ere, inoiz, azkenak izanen dira lehenen, eta gutien uste denak eman lezake gehien.

Edonon aurkitu genezazke jende kezkatiak, jakin nahiaz kutsatuak, gauzatxoren baten xehetasuna ezagutu nahi duenetik hasi eta ikasketa burutzeko tesia egin nahi duena edo gai bati buruzko ikerketa. Azken baten, herri baten historian eta bizieran, eta herri horren gizonen pentsakera, sentiera, sineskera eta bizi den munduaren inguruan agertzen duena baita kultur orokorra eta hoietan hezitzea bera (hoietan edo hoietatik abiaturik landuaz) kulturgintza.

Beraz, kultur hedapena oso zabala da eta inork ez dezala uste liburu soil batean, eskola batean, inguru batean edo gai jakin batzuetan aurkitu lezakenik. Honek ere, ardo onak bezala, bere tratamendua eta denbora behar ditu. Zorionez, esango nuke, denboraz eta tokiz mugatzen ez dena dela.

Ikasketan ordea, gaur oraindik, entzungailu eta ikusgailu asko egonarren, liburuak ditugu oinarri, eta irakurtzeko ohiturak irikiko dizkigu biderik zabalenak eta luzeenak, jakitatea lortzetik ikerketak bideratzera arte. Hau, edozein gaitan gainera.

Bide ibiliaz egiten da, eta ekintza berak eraikusten digu iturririk jatorrenak hautatzen; zein zer den erakusten digun bezala. Enziklopediak aldi bat markatu zigun, eta ordutik, gizonaren ahalmenak bere neurria duenez-zeren, jakintzak lekurik betetzen ez badu ere, denbora eskatzen bai du-edonorri beharrezko zaio liburutegia eta honen barnean kultur gordailu enziklopediak. Euskal kulturaz, era askotako galderak jasotzen ohitua naiz, ahal dudan neurrian ihardespenak ematen ere bai. Eta, orraintsu, bizpahiru aldiz gauza bera eskatu didate: euskal kulturaz jabetzeko oinarrizko iduritzen zaizkidan liburu zerrenda. Ikerketa zehatzak egiteko denean, zalantzarik gabe, Jon Bilbaoren ***Eusko Bibliographia*** *gomendatzen diet eta gainerakoan zer nahi dutenaren arabera. Era orokorrean datorrenari berriz* ***Diccionario Enciclopédico Vasco.*** *Hau oraindik bukatu gabea da, baina burutzen denean edonor aurkituko da bere beharrez.*

J. Bilbaoren lan bikainari lehenago ere artikuluak eskainia naiz eta gaurko hontan Auñamendi argitaldariak daroan enziklopediari eskainiko diot. Badakit irakurle askok nik haina ezagutuko dutela, baina baita ere, egiten dizkidaten galderen arabera, badakit euskal kulturaz arduratzen dire askok oraindik ez dutela ezagutzen.

Diccionario Enciclopédico Vasco *delakoak erarik zabalenean jasotzen ditu Euskal Herriko gauzak. Erdaraz dago zoritxarrez. Gai hauetarako euskarak bere aspaldiko ajeak bai ditu; euskaldunik gehienak ez direla bere hizkuntzan eskolatuak eta horregatik irakurlego murritza duela gure hizkuntzak, eta ekonomiak beste ezerk baino gehiago agintzen duen artean horrela jarraituko dugula.*

Lan seriosak eta iraunkorrak ez dira batean egiten. Eibartarron esaera da, "bizkor eta ondo, usuak egan". Enziklopedia horren ideia oso aspaldikoa zuen Bernardo Estornés Lasak. 1933. urterako hasi zen gaiak sailkatzen, bibliografia hautatzen, laguntzaileak bilatzen, lehen fitxeroak hornitzen eta adibide gisazko lehen artikuluak idazten. Beraz, ezta atzo goizeko gauza. Gerratearekin material asko galdu zitzaion eta urtetako atzerapea ekarri zion. Baina, maiz, ahalmenak haina gogoak agintzen du, eta gerraondoren kemen berrituaz ekin zion aspaldiko asmoari. Ekintzaren frutuak ernetzen hasi ziren 1958. urtean. Ordutik, zenbait tomo argitaratuz, lanaren erdialdera heldua da. Bukatzen denean altxor paregabea izango den lana.

Ale bakoitzak 28 x 20 zentimetroko neurria du eta seirehun orrialdetik gora. Alfabeta ordenan, geografia eta historiatik tokian tokiko monografietara estadistika berri ta guzi, kirol, folkore eta beste era askotako gaiak metatzen dira, egile, toki, heraldika, ogibide eta abar hitzik apalena ere barne dela.

Ez dut zalantzarik jartzen zenbait hutsune ere izango direla, baita zenbait oker ere, zeren halako lan handi eta arruntetak ezinezkoa bai da hutsik gabe argitaratzea.

Oinarri oinarrizko lana dugu zernahi jakiteko edo zernahitaz lanera abiatzeko. Ez dena. Dena erakutsiko duenik ez dago. Baina, besteak beste, gazteleratik euskarazko hitzak aurkitzeko ere ezta txarra enziklopedia hori. Bere beste dohain bat Euskal Herri osoko gai eta berriak jasotzean datza.

Poztuko ginake argitalpenok Auñamendi argitaldaria bizkortuko balitu eta lehenbait-lehen bukatu. Zeren mesede ederra egitera dator euskal kulturari.

Juan SAN MARTIN

A tenor de las preguntas y consultas que recibo, tengo la impresión de no estar suficientemente difundida la obra **Diccionario Enciclopédico Vasco** de Auñamendi. Obra tan vital para la iniciación, introducción y consulta en torno a la temática vasca. Indispensable para recurrir a las principales fuentes documentales de la cultura vasca.

La bibliografía general por autores y materias se recoge en el cuerpo **Eusko Bibliographia** de Jon Bilbao, a la que dedicamos un artículo en su día y hemos mencionado con frecuencia. Sin embargo, el **Diccionario Enciclopédico Vasco** es tan conocido.

Los trabajos serios y de [illegible] rara vez se pueden impri[illegible] aquella vieja aspiración de [illegible] nardo Estornés Lasa ha [illegible] paulatinamente para alcanzar [illegible] mitad de su andadura hacia el [illegible] tivo final, que constituirá un [illegible] cio de consulta rápida y [illegible] como corresponde a las exi[illegible] días.

El plan comenzó a gestar[illegible] con la sistematización de los [illegible] selección bibliográfica, [illegible] colaboradores, ficheros insi[illegible] dacción de los primeros artí[illegible] muestra, etc. Parte de aquel [illegible] rial se perdió en la contienda [illegible] pero persistió la férrea [illegible] para rehacer y laborar [illegible] siasmo.

Desde 1958, Ed. Auñamendi [illegible] sacando a la luz, en volúmenes [illegible] 28 x 20, con más de 600 página[illegible] presas e ilustradas, y que [illegible] por orden alfabético, aspectos [illegible] geografía e historia, monografías [illegible] cales con sus datos [illegible] acontceceres deportivos, [illegible] con sus melodías en pentag[illegible] escudos heráldicos, folklore, [illegible] res, lugares, profesiones, etc. [illegible] el simple vocablo.

No dudo que haya lagunas [illegible] cluso errores, que nunca [illegible] las obras humanas, máxime [illegible] se trata de esta envergadura.

En la obra desfilan artículos [illegible] súmenes descriptivos de todo [illegible] tema, con tal de que de [illegible] nera se relacionen con el pueblo [illegible] la cultura del país. También [illegible] biografías de personajes y [illegible] **culum** de autores y sus obras.

Gerardo Lopez de Gereñu-ren lanak

Zenbat dira Gerardo Lopez de Gereñuk urteetan zehar argitaratutako lanak? Hau bai galdera zaila! Ehunetik gora direla esan daiteke, zenbaki zehatzik ematera inor ausartzen ez delarik. Ezta egilea bera ere. Dena dela, ez dut uste garrantzia zenbakian datzanik, lanetan erakutsitako kalitatean, baizik. Eta alde honetatik, Gerardok egindako lana goi mailakoa dela edozeinek froga dezake.

Nik dakidanez, ondoko aldizkari hauetan publikatu ditu bere artikuluak; Barzelonako "Algo" (etxean zeuzkan aldizkari honen ale guztiak galdu zituen artxibategia erre zitzaionean); "Boletin Sancho el Sabio"; "Eusko Folklore"; "Euskera"; "Boletin de Cultura Religiosa de Vitoria"; "Boletin de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del Paris"; "Hoja informativa de la Caja de Ahorros Provincial de Alava"; Madrilgo "Revista de Dialectologia y Tradiciones populares"; "Revista Excursionista Manuel Iradier"; "Munibe"; "Estibaliz"; "Aranzadi"; "Aranzazu"; "Pirenaica"; Barzelonako "Publifoto".

Gerardoren artikuluak irakurtzen ditugunean ez dugu datu-zerrenda soil batez topo egiten. Aitziltik, gasteiztar honek ba daki ematen bere lanari irakurleak atsegin izango duen estiloa. Eta hau idazten ari naizela! ***"El Zadorra nos cuenta su vida"*** *deritzan lana datorkit gogora. 1.958.ko Boletin Sancho el Sabio-n dagerren artikulu honetan Zadorra hibaiaren xehetasun asko jakinerazten digu egileak. Hibaiari eskainitako lanaren hitzaurrean honela irakur daiteke:* ***"Que las aguas, que el azar, caprichoso y voluble, hagan cambiar de vertiente, tengan en las bravias olas de nuestro Cantábrico, la misma cariñosa acogida que sus compañeras —siguiendo el milenario cauce y mezcladas con las de su hermano mayor, el Ebro— han tenido siempre en la soleada inmensidad del Mediterráneo".***

Gerardok nahi izan arren egiteke geldituen den lanik ba al da?, galdetu diot eta bihotzez erantzun didala uste dut: ***"Ez; nahi izan dudan guztia eginda dagoela deritzat".***

Oker ez banago, Lopez de Gereñuk liburu gisa ateratakoak hauexek dira: "Alava, solar de Arte y de Fe"; "Devoción popular en España a la Virgen Blanca y N. Sra. de las Nieves"; "Botánica popular alavesa"; "Calendario alavés"; "Voces alavesas"; "Toponimia alavesa"; "Vida infantil en Alava", eta berriki argitaratu duen "Apellaniz, pasado y presente de un pueblo alavés". Guztion artetik zein aukeratuko lukeen itaundu diodanean ez da lehen bezain zorrotza izan. Nolanahi ere, ***"Denak gelditu dira ondo"*** *hitz ostean "Alava, Solar de Arte y de Fe" (C.A.M.V.-1962) deritzanaren itzala ikusi ahal izan dudala iruditu zait. Eta ez da bat ere harrigarri, liburuak gordetzen duen mamia arte-zale guztiok txalotzen baitute. Arabako arte-erlijiosoari buruzko edozein xehetasun bila dihardueneak liburu horretara joko du. Eta Gerardok —harrotasun ulergarri batez beterik— "Mikaela Portillak"voy a consultar el Gereñu" esaten du"* aitortu dit.

Harrera ezin hobeagorik izan zuen beste liburu bat "Calendario alavés" (B.I.S.-1970) izenekoa da. Gaurregun agortuta aurkitzen da edizioa eta ez litzateke bat ere gaizki etorriko bigarren bat kaleratzea. Monografia honetan urteko egun guztiak aztertzen ditu Lopez de Gereñuk, bakoitzari dagokion alpamena eransten duelarik.

Joan den hilean publikatutako "Apellaniz, pasado y presente de un pueblo alavés" liburuan honela irakur diezaiokegu On Jose Migel Barandiarani: ***"Estas páginas nos ofrecen, pues, una imagen o descripción objetiva de la cultura popular, una labor ejemplar que debería ser imitada por otros en diversas localidades de nuestro país, para que un día se pueda acometer la formación de un atlas etnográfico de Vasconia, atlas que sea expresión fiel y acabada de la etnia vasca en estas últimas fases de su evolución".***

Ez dut uste hitz egokiagorik aukera daitekeenik Lopez de Gereñuren liburu hau goraipatzeko. Eta, jakina, liburua ez ezik, hitz hoien bidez Gerardoren obra guztiaren meritua ezagutzen ari dela esan daiteke. Bestalde, aipatutako liburuaren aurkezpenean Enrike Knorr-ek —Arabako Unibertsital Kanpusko erretoreordea— honela esan zuen: ***"Gerardo Lopez de Gereñuk jasotako gaia ekonomilari, historiegile eta filologoek erabil dezakete".*** *Ez deritzat hitz merkerik denik.*

Gerardoren lanak ez du oraindik amaiera aurkitu. Eta egunero egunero —irakurketari ordu pare bat eskaini ondoren— argitaratu barik daukan gaia gertutzen ohi dihardu. "Toponimia euskérica de Apellániz" artikulua D. Odon Apraizen omenez argitaratuko den liburuan doa; "Refranero alavés"; "Andra Maris de Alava"; "La arrieria en Alava"; "Algunas novedades acerca del culto religioso en pasados tiempos"; "Noticias curiosas pretéritas y presentes por tierras alavesas de arboricultura"; "Toponimia de la antigua Foronda"; "Dulces vitorianos y otrax golosinas"; "Las ermitas rupestres en la montaña alavesa".... dira noizbait argia ikusiko dutenak.

Amaitzeko, zilegi bekit ***aupa*** *haundi bat eskaitzea Gerardorentzat. Euskal Herriaren izanarengatik ardura pixkat azaltzen dugun guztiok eskerroneko txalorik jo beharko genuke gizon honen omenez. Bere bizitzan zehar gure Herriaren alde erakutsitako joerak Lopez de Gereñuren maila nolakoa den erakutsi digu, argi eta garbi. Zutabe hauetatik, aurrera beti Gerardo!*

Josemari VELEZ DE MENDIZABAL

Prácticamente es imposible dar la cifra exacta de los trabajos publicados por López de Guereñu en su larga trayectoria de articulista especializado. Comenzó esta labor en la revista barcelonesa "Algo", en el año 1934 y desde entonces ha venido colaborando asiduamente en "Eusko Folklore", "Boletín Sancho el Sabio", "Euskera", "Boletín de Cultura Religiosa de Vitoria", "Boletín de la RSVAP", "Hoja Informativa de la Caja de Ahorros Provincial de Alava", "Revista de Dialeciología y Tradiciones Populares", "Manuel Iradier", "Munibe", "Estibaliz", "Aranzadi", "Aranzazu", "Pirenaica", "Publifoto"...

Algo que llama la atención del lector de López de Guereñu es lo ameno de la mayoría de sus artículos. Lejos de ser un mero transmisor de datos, sabe dar a sus escritos un enfoque narrativo que los hace perfectamente "digeribles" [illegible] los-lee. Son algo más [illegible] de datos". Y cuando [illegible] cuerdo el título de "El Zadorra [illegible] cuenta su vida", verdadero [illegible] este popular río alavés.

Por lo que se refiere a [illegible] Solar de Arte y de Fe" [illegible] popular en España a la [illegible] Blanca y N. Sra. de las [illegible] "Botánica popular alavesa", [illegible] dario alavés", "Voces alavesas", [illegible] ponimia alavesa", "Vida infantil [illegible] Alava" y el recientemente [illegible] "Apellániz, presente y pasado [illegible] pueblo alavés". En su [illegible] "Alava, Solar de Arte y de Fe" [illegible] (C.A.M.V.-1962) el que [illegible] pequeña ventaja sobre [illegible] la hora de las preferencias [illegible] Comenta éste que cuando [illegible] Portilla consulta este libro [illegible] que acude "al Guereñu" [illegible] dicho que vienen a decir [illegible] portancia de la publicación [illegible] dario alavés" (B.I.S.-1970) [illegible] hoy agotada, es otro de los [illegible] marcado un hito en la historia [illegible] bibliografía alavesa. [illegible] pena hacer un esfuerzo por [illegible] editarlo.

Las palabras que [illegible] logo de D. José Miguel de [illegible] rán al libro "Apellániz, [illegible] futuro de un pueblo alavés" [illegible] la categoría no solamente [illegible] en cuestión, sino de todas [illegible] publicaciones fruto del [illegible] López de Guereñu. Entre [illegible] vicerrector del campus [illegible] de Alava, comentaba durante [illegible] sentación de este libro que [illegible] rial recopilado por Gerardo [illegible] tanto a un economista, [illegible] filólogo.

La labor de López de [illegible] sigue adelante. Queda [illegible] trabajo por dar a conocer [illegible] está este lóven de 77 años [illegible] confiamos en que su esfuerzo [illegible] recompensado como se merece.

Para terminar, quisiera dedicar [illegible] columnas pedir un "aplauso" [illegible] rardo. La dedicación [illegible] "sin prisa pero sin pausa" [illegible] de la cultura de su Pueblo [illegible] acreedor al mejor de nuestros [illegible] cimiento. Aurrera beti, Gerardo!

SEMINARIO SOBRE GESTION DE LA INNOVACION PARA EMPRESARIOS EN SAN SEBASTIAN

Organizado por la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa y el C.D.T.I. del Ministerio de Industria.

Días:
11, 12 y 13 de Noviembre.

Horario:
De 9 a 18'30 miércoles y jueves.
De 9 a 13'30 viernes

Programa:
1.—La empresa y su adaptación al entorno cambiante.
2.—El proceso de innovación: Gestión y organización interna de la empresa:
- La decisión tecnológica.
- La asimilación de tecnología.
- Previsión e información
- El diagnóstico para la innovación
- Estrategia de la innovación
- La decisión de innovar
- Los costes de la innovación
- Los riesgos de la innovación
- La comercialización del proceso innovador

3.—Ayudas externas a la empresa innovadora.

Información: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa. Aguirre Miramón, 2. Tfno. (943) 27 24 00.